

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018**

**SEGURTASUNA**

1. 2018. urtean, Algecirasen egindako Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak..... 2



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2018. urtean, Algecirasen egindako Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak**

#### 2.- Araua

Agindua, 2018ko ekainaren 6koa, Segurtasuneko sailburuarena, 2018an Algecirasen egingo diren Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoen VII. edizioan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak arautzen eta deitzen dituena (EHAA 114 zk., 2018/06/14koa). Arau hori 2018ko uztailaren 18ko Aginduak aldatu zuen.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko ekainaren 6koa: EHAA 114 zk., 2018/06/14koa

AGINDUA, 2018ko uztailaren 18koa: EHAA 143 zk., 2018/07/26koa

Ebazpena, 2019ko ekainaren 4koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2018an Algecirasen Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kidegoko kirolarientzako laguntzen deialdiaren babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda. EHAA 137 zk., 2019/07/19koa

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

##### **Deskribapena:**

- 2018an Algecirasen, irailaren 21etik 29ra bitartean, egindako Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoen VII. edizioan parte hartu duten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kidegoko kirolarientzako dirulaguntzak.
- Eskatzaile bakoitzari jokoetan parte hartzeagatik izandako eta justifikatutako gastuaren % 60ko dirulaguntza emango zaio gehienez, betiere eskabide bakoitzeko zortziehun eta berrogeita hamar euroko muga (850) gainditu gabe, hogeita mila (20.000) euroko guztizko dotazio ekonomikoaren barruan.

##### **Helburuak:**

- Ertzaintzaren irudi positiboa sustatzea hala Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan nola kanpoan.
- Kirol-lehiaketan balioak sustatzea, aintzat hartuta horietako asko parte-hartzaileen jardueraren profesionalarekin erlazionatuta daudela modu batera edo bestera, eta parte-hartzaileok baldintza fisiko onenetan egoteko balio dutela.
- Ertzaintzako kideek erakundearen parte direla are gehiago sentiaraztea eta beste kultura eta komunitate batzuekin laguntasun- eta truke-harremanak ezartzea. Horrela, Ertzaintzaren irudi ona sustatu eta hedatuko da zeregin profesionalaren alderdi guztietan.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako eskabide guztien artean, Ertzaintzako 38 agenteri eman zitzaizkien dirulaguntzak, 7 emakumeri eta 31 gizoni. 127,05 eta 801,79 euroren arteko zenbatekoak eman zitzaizkien, eta beraz, dirulaguntza, guztira, 15.978,37 eurokoa izan zen.

Ertzaintzako ordezkariak 81 domina lortu zituzten, urrezko 39, zilarrezko 23 eta brontzezko 19, aurreko edizioetan baino lorpen gehiago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak.

Dirulaguntza Plan Estrategikoak ez du adierazlerik ezartzen programa honetarako.